# KOSTALDEKO IBILBIDEA

Euskaditik igarotzean, E9 “Europako Kostaldeko ibilbidea” mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinaleztatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121® ”Talaia ibilbidea” Gipuzkoan, eta GR 123® “Bizkaiko Bira” Bizkaian.

# SENDERO LITORAL

*A su paso por Euskadi, el E9 “Sendero Litoral Europeo” se encuentra señalizado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR® 121 “Sendero Talaia” en Gipuzkoa y con el GR® 123 “Vuelta a Bizkaia” en el tramo vizcaíno.*




## GOMENDIOAK

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa…).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

## RECOMENDACIONES

*Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.*

*Planifica bien las etapas y adáptalas a tus posibilidades.*

*Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación...).*

*Respeta el entorno que visitas y al resto de senderistas.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Ed. 2025

Bidezatia / *Tramo*

## ZUMAIA ▶ ELORRIAGA


Talaimendi eta Itzurungo itsaslabarrak
*Acantilados de Talaimendi e Itzurun*

km 0 **ZUMAIA.** San Telmo kaleari jarraituz, Itzurungo itsaslabarren atzealdetik igoko gara, eta izen bereko baseliza ikusiko dugu haien gainean. Hari buruzko lehen aipamen idatzia 1540. urtekoa da. Santu titularra marinelen zaindaria denez, XVII. mendetik aurrera San Telmo Itsas Gizonen Kofradiaren egoitza izan zen baseliza hori. Haren ondoan, asfaltoa atzean utzi eta bidexka estuan barrena egingo dugu aurrera, geruzen norabideari jarraiki, eta Algorri begiratokira iritsiko gara.

km 1,2 **ALGORRI.** Ikuspegi ederren lehen zati horretaz gozatu ondoren, bidexka kostaldetik urruntzen da eta barrualdera jarraitzen du, Agirre baserrietaraino igoera gogorrari ekinez. Bertan, freskatzeko aukera izango dugu egindako ahaleginaren ondoren. Donejakue bidearekin bat egingo dugu zati horretan, eta zelai eta baserri sakabanatuen artean aurrera egingo dugu, Elorriagako atsedenlekura iritsi arte.

km 0 ***ZUMAIA.*** *Siguiendo la calle San Telmo ascendemos por la parte trasera de los acantilados de Itzurun donde encontramos colgada sobre ellos la ermita del mismo nombre. La primera referencia escrita sobre ella data del año 1540. Su santo titular es patrono de marineros, razón por lo que desde el siglo XVII esta ermita fue sede de la Cofradía de Mareantes de San Telmo. Junto a ella dejamos atrás el asfalto por la estrecha senda que, siguiendo la dirección de los estratos, nos conduce al mirador de Algorri.*

km 1,2 ***ALGORRI.*** *Tras disfrutar de este primer tramo de vistas, el sendero se aleja de la costa y se dirige al interior acometiendo la fuerte ascensión hasta los caseríos de Agirre, donde nos podemos refrescar tras el esfuerzo. Nos unimos en este tramo al Camino de Santiago y avanzamos entre prados y caseríos dispersos hasta alcanzar el área recreativa de Elorriaga.*

eu es

# KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

EUSKAL KOSTALDEA COSTA VASCA




Zumaia eta Deba arteko Kostaldeko ibilbideak euskal kostaldeko mirari geologiko ikusgarrienetako bat erakusten digu: Flyscha. Harrizko egitura horiek xafla finetan hedatzen dira, eta, olatuek joak, antzinako liburu baten orrialdeak ekartzen dizkigute gogora, baikoitzak bere garaiaren historia kontatuz geologiaren bidez. Ibilbidea sigi-saga doa labarren eta hondartzen gainetik, eta paisaia natural paregabe horren ikuspegi bikainak eskaintzen dizkigu.

*El Sendero Litoral entre Zumaia y Deba nos acerca a una de las maravillas geológicas más impresionantes de la costa vasca: el Flysch. Estas formaciones rocosas se despliegan en láminas que, abatidas por las olas, recuerdan las páginas de un antiguo libro, que contando la historia de su tiempo a través de la geología. La ruta serpentea sobre sus acantilados y playas, ofreciendo vistas espectaculares de este paisaje natural único.*

13,5 km | 649 m | 4h 45′ | MIDE 1-2-2-3




**MIDE**

1 Ingurunean arriskuak egon daitezke
*El medio no está exento de riesgos*

2 Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak
*Sendas o señalización que indica la continuidad*

2 Zaldibideko ibilaldia
*Marcha por caminos de herradura*

3 3 eta 6 ordu arteko ibilaldi jarraia
*De 3 a 6 horas de marcha efectiva*

**SEINALEZTAPENA**
***SEÑALIZACIÓN***

GR® 121

Ibilbidearen jarraipena
*Continuidad del sendero*

Norabide aldaketa
*Cambio de dirección*

Norabide okerra
*Dirección equivocada*

↓TRACK   + INFO



## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
¡NO TE LO PIERDAS!

Mutriku, Deba eta Zumaiako kostaldea UNESCOren Geoparkeen sarean dago 2015etik. Zumaiako Itzurun hondartzan, flyschak inguru honetan duen garrantzia gogorarazten digute bi "urrezko iltze" edo estratotipok, mundu mailan bi erreferente baitira geologiaren bi aldi zehatz aztertzeko: Selandiarra eta Thanetiarra.

*La franja costera de Mutriku, Deba y Zumaia forma parte de la red de de Geoparques de la UNESCO desde 2015. En la playa de Itzurun de Zumaia, dos "clavos de oro" o estratotipos, nos recuerdan la relevancia del flysch en esta zona, ya que son dos referentes a nivel mundial para estudiar dos periodos concretos de la geología; el Selandiense y el Thanetiense.*





2018an, Debako zubiko (1866an eraikia) erdiko pilareak behera egin zuen, eta gangetako bi kaltetu ziren. Gainazalean harrizko zubi bat ikusten badugu ere, oinarria zurezko piloteen gainean dago. Pilote horiei molusku xilofago batzuek eraso zieten, eta kolapsatu egin ziren. Material eta teknika ahaztuei buruz ikerketa historiko sakona egin ondoren zaharberritu zuten zubia, eta Europar Batasunak saritu egin zuen 2023an.

*En 2018 el puente de Deba, construido en 1866, sufrió el abrupto asentamiento de su pila central dañando dos de las bóvedas. Aunque en superficie vemos un puente de piedra, su base se asienta sobre pilotes de madera que fueron atacados por unos moluscos xilófagos haciéndolo colapsar. Su rehabilitación se realizó tras una profunda investigación histórica sobre materiales y técnicas olvidadas y fue premiada por la Unión Europea en 2023.*

## Bidezatia / *Tramo*
# ELORRIAGA ▶ DEBA

km 4,9 **ELORRIAGA.** Atsedenlekutik abiatzen da Baratzazarrak begiratokira doan bidea. Berriz ere GR ibilbidetik abian, Elorriaga auzora iritsi baino lehentxeago, bidea adierazten duten gezi horietatik aldenduko gara. Itziar auzora doa gezi horiek adierazten duten bidea, barrualderantz. Pixkanaka jaisten hasiko gara, eta berriro kostaldera hurbilduko gara Portutxikiko balkoian eta Sakoneta hondartzan. Zati honetan, itsaslabarren eta flyscharen beraren bista ederrez gozatuko dugu, hainbat begiratoki ikusgarri baitaude bertan. Trenbideko tunel zahar bat igaro ondoren, N-634 errepidea hartuko dugu, eta oinezkoentzako pasabide baten bidez zeharkatuko dugu, gora eginez, Santa Katalina baseliza eta talaiaren bila.

km 11,7 **SANTA KATALINA.** Erdi Arokoa izan daiteke, nahiz eta XIX. mendean estilo neogotikoan berreraiki zuten. Itsaslabarraren gainean dagoen baseliza bakarti hori etengabeko erreferentzia da kostalde horietan nabigatzen duten ontzientzat, bai eta begiratoki aparta ere. Debara jaitsiko gara San Roke baselizako egurrezko arkupe politaren paretik pasatuz. Azken zati horretan, Donejakue bidearen ondoan berriro, galtzada zaharra ageri da, marinel-herri horretako hirigunera iritsi baino lehen.

km 13,5 **DEBA.**

km 4,9 ***ELORRIAGA.*** *Desde el área recreativa parte un desvío al mirador de Baratzazarrak. De nuevo en marcha por el GR, justo antes de alcanzar el barrio de Elorriaga, nos separamos de las flechas amarillas que indican el Camino y que conducen al barrio de Itziar, hacia el interior. Comenzamos poco a poco a descender acercándonos de nuevo a la costa en el balcón de Portutxiki y la playa de Sakoneta. En este tramo disfrutaremos de las mejores vistas sobre los acantilados y el propio flysch con varios miradores espectaculares. Tras pasar un antiguo túnel ferroviario, buscamos la N-634 que cruzamos por medio de una pasarela peatonal, ganando altura en busca de la ermita y atalaya de Santa Catalina.*

km 11,7 ***SANTA CATALINA.*** *De posible origen medieval, aunque reconstruida en estilo neogótico en el siglo XIX, esta solitaria ermita encaramada sobre el acantilado constituye una constante referencia para las embarcaciones que navegan por estas costas y unmirador excepcional. Descendemos a Deba pasando frente al bonito pórtico de madera de la ermita de San Roque. En este último tramo, de nuevo junto a la ruta jacobea, la vieja calzada aflora encajonada antes de alcanzar el casco urbano de esta localidad marinera.*

km 13,5 ***DEBA.***



N-634 errepidean oinezkoentzako pasabidea
*Pasarela peatonal sobre la carretera N-634*

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
A TENER EN CUENTA

• Etapa zoragarria da, baina gogorra, nahiko "gorabeheratsua", etengabeko igoerak eta jaitsierak baititu. Kalkulatu ondo zure indarrak, eta hartu lasai!

• *Se trata de una etapa preciosa pero exigente, bastante "rompepiernas", con continuas subidas y bajadas. ¡Calcula bien tus fuerzas y tómatela con calma!*

• Flyscha ikusteko unerik onena itsasbeheran izaten da. Itsasaldien taula kontsultatzea gomendatzen dizugu, Sakoneta hondartzaren ondotik igarotzean (7,8 km) itsasbehera izan dadin.

• *El mejor momento para contemplar el flysch es en marea baja. Te recomendamos consultar la tabla de mareas para hacer coincidir el paso junto a la playa de Sakoneta (km 7,8) con la bajamar.*

## TELEFONO INTERESGARRIAK
TELÉFONOS DE INTERÉS

Turismo bulegoak
*Oficinas de Turismo*

| | |
|---|---|
| Zumaia | 943 14 33 96 |
| Deba | 943 19 24 52 |

Larrialdiak
*Emergencias*
112 SOS DEIAK

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

